

# Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan

Agurtzane Elordui  
UPV/EHU

Komunikabideetan, oro har, elebakartasunaren ideologia eta praxia lehenetsi dira, batez ere XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan. Baina, medioen ekologia guztiz aldatu da azken hogeitun urteotan: homogeenoa eta kontrolatua izatetik, ahots eta ideologia linguistiko anitzeko testuinguru mediatiko heteroglosiko batera igaro da.

Joera heteroglosiko hori bereziki nabaria da gazteei zuzendutako komunikabideetan. *Bernakulizazioa* eta *translokalisazioa*, joera soziolinguistiko biak antzeman dira azken urteotan gazteen erabileran. Lan honetan bernakulizazioan jarriko dugu arreta: bernakulizazioak gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan duen lekua aztertu dugu Gaztea Irratia (EITB) komunikabidearen kasuan. Diseinu hori gazteen testuinguru soziomediatikoaren marko orokorrean aztertu dugu, heteroglosia eta gazte-identitate mediatikoaren artean antzeman daitekeen lotura abiapuntu.

GAKO-HITZAK: Heteroglosia · Gazte-hizkera · Bernakulizazioa · Diseinu sozioestilistikoa.

## From monolingualism to heteroglossia: Gaztea radio, vernacularisation in the sociostylistic design of youth media

Generally speaking, a monolingual ideology and praxis has been prioritised in the media, especially in the 1980s and 1990s. Yet the media ecology has completely changed in the last two decades: from being homogenous and controlled, it has been transformed into a heteroglossic media context of multiple linguistic voices and ideologies.

That heteroglossic tendency is especially evident in media aimed at young people. Vernacularisation and translocalisation, two sociolinguistic tendencies, have been apparent in recent years among young people's language use. This article will focus on vernacularisation: we have examined the presence of vernacularisation in the sociostylistic design of youth media in the case of the radio station Gaztea (EITB). We will explain that design within that general framework of the sociomediativ context of young people, starting from the links that can be perceived between heteroglossia and youth media identity.

KEY WORDS: Heteroglossia · Young speech · Vernacularisation · Sociostylistic design.

*Jasotze data:* 2015-09-29    *Onartze data:* 2016-01-18

## 1. Komunikabideak elebakartasunetik heteroglosiara

Komunikabideek erabilera eta praktika soziolinguistiko elebakarrerantz jo zuten beren sorreratik. Funtsean komunikabide tradizionalak (prentsa idatzia, telebista eta irratia) instituzionalki nazio-estatuaren eraikuntzan izan duten funtzioagatik, eta audientzia zabalak bereganatzeko izan duten premiagatik ere (Blommaert & Verschueren, 1998; Coupland, 2001, 2007). Estandarrak ez diren aldaerak medioen diskurtso publikotik kanpo izan dira 80ko eta 90eko hamarkadetan, edo estatus, funtzio eta hedapen mugatua izan dute. Fikzioaren munduan eta batez ere umorearekin loturiko generoetan erabili dira jatorri geografiko edo soziala adierazteko, eta sarritan marjinazioarekin eta pertsonaien beheko estatusarekin lotu dira (Androutsopoulos, 2010; Culpeper, 2001; Lippi-Green, 1997).

Hizkuntza gutxituen komunikabideen kasuan ere, elebakartasuna guztiz errotuta izan da komunikabideen euren funtzioetan bertan ere. Hizkuntzaren barneko aldakortasuna (dialektoak, hizkerak, etab.) baztertu da sarritan, komunikabideen zeregin normalizatazaileen zerrendan estandarraren ezarpena erabat lehenetsi delako. Bestalde, gizarte elebidunaren bi hizkuntzen arteko edozein ukitze saihestu da, hizkuntza gutxituen medioen funtzio eredugarriak eragotzi baitu kode-aldaketa komunikabide horien hizkuntza-estrategietan integratzea.

Baina erabat irauli da komunikabideen panorama soziolinguistikoa azken bi hamarkadetan, bereziki Interneten sorreratik. Komunikabideak testuinguru homogeen eta kontrolatuak izatetik ahots eta ideologia linguistiko anitzeko testuinguru mediatiko heteroglosiko batera igaro dira (Busch, 2006). Egungo medio digitalen azterketa soziolinguistikoek agerian utzi dute komunikabideen diskurtsoan hizkuntza-dibertsitatea nabarmenki areagotzen ari dela, eta areagotze hori estuki loturik dagoela media-instituzioetan eta gizartean gertatutako fenomeno soziokultural zabalagoekin.

90eko hamarkadatik medioen sistemaren desregularizazioak audientzien araberako medioen dibertsifikazioa ekarri du, eta horrekin audientzien araberako medioen diseinu soziolinguistiko berezituak (Androulopoulos, 2010; Coupland, 2007). Baina dibertsitate linguistikoaren erabateko lehertzea azken hamarkada honetako medio digitalen produkzio- eta kontsumo-eredu berriek ekarri dute. Izan ere, Web 2.0n eta krosmedia- eta transmedia-produktuetan ohikoak diren audientziaren parte-hartze estrategietan hizkuntza-bernakularizaziorako joera nabarmenki areagotu da<sup>1</sup>. Instituzioen kontrolik gabeko praktika bernakuluek —hau da, norbanakoen jardun mediatikoan eta tokian tokiko jakintza eta sormenetik sortuak— gero eta presentzia handiagoa dute medio digitaletan: blog, web edo Facebook eta Youtube plataformen bidez, esaterako. Erabilera-nitxo berri horiek atea zabaldu diete tokian tokiko hizkera bernakuluei, informalak, ez-kodifikatuak eta «ez-estandar» gisa sailkatuta diren horiei.

---

1. Honela azaltzen du Nikolas Coupland-ek bernakulizazio-joera soziolinguistikoak: «And if standardization is an ideological drive towards uniformity and (in Milroy and Milroy's terms) to suppress variation, then vernacularization should be defined as resistance to these movements; vernacularization is an ideological drive towards plurality a difference as they exist outside of the normalizing influences of standardization, (...)» (Coupland 2014: 86).

Bestalde, Coupland-ek (2007, 2010, 2014) agerian utzi duen bezala, medioen bernakularizazioak lotura estua du medioetatik kanpo ere dimentsio zabalagoa duten aldaketa soziolinguistiko batzuekin. Soziologiaren alorrean Modernitate Berantiarra («Late Modernity» Giddens, 1991) deitu den horretan, Europa mailan *desestandarizazioa* eta *demotizazioa* joera soziolinguistikoek hedapen zabala izan dute (Kristiansen, 2009; Kristiansen & Coupland, 2011). Estandarraren ideologiaren ahultzea ekarri dute joera biek eta agerian utzi dute aldaera estandarren eta ez-estandarren gizarte-ebaluazioan ardatz anitzeko unibertso ideologiko bat dugula egungo Europan (Coupland, 2014). Unibertso horretan, «hizkuntza/aldaera ona» kontzeptualizatzeko modua lausotu da: erabilera-eremu eta funtzio jakinen arabera, estandarrak ala dialektoak, biek ere hartzen dute prestigio-mailan lehentasuna.

Hizkuntza gutxituen medioak gizarte eta media-ekologia berri horren parte dira; hala da behintzat Europa mailako medio minoritarioen kasuan (Jones & Uribe-Jongbloed, 2013). Edozein hizkuntzaren medioek bezala, merkatu global batean haien ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu behar dituzte, eta transmedia- eta krosmedia-produktuak garatu behar dituzte audientziaren partizipazioa sustatzea baita haien lehentasuna ere (Elordui, 2015). Horrek ezinbestean ekarri die neurri handiagoan edo txikiagoan, haien diseinu soziolinguistikoan aldaketak egin behar izatea eta praxi elebarkarra alde batera utzi eta diseinu heteroglosikoago batera aldatzea (Busch, 2006).

Euskarazko komunikabideak, esaterako, medioen aldaketa soziolinguistiko horren parte aktiboak dira eta barne-dibertsifikazioaren zantzuak gero eta nabaria-goak dira haien medio-produktuetan. Hizkera bernakuluen (berezi euskalkien) erabilerak gero eta ohikoagoak dira euskarazko zinema-produktuetan, esaterako: aitzindari gisa *Aupa Etxebeste* (2005) eta *Kutsidazu bidea Ixabel* (2006) ditugu eta, film berrien artean, *Xora* (2012), *Amaren eskuak* (2013) eta *Loreak* (2014) dira euskal zineman hizkuntza-bernakulizazioaren adibide argiak. Telebistarako sortutako produktu arrakastatsu zenbaitek (aipagarrienak *Wazemank* eta *Noaoa*) ere ildo beretiko urratsak erakutsi dizkigute. Horietan guztietan euskal produkzioen aurretiko joera elebarkarra alde batera utzi da eta hizkuntza aldakortasuna harrobi aberats bihurtu dute egoeren zein pertsonaien karakterizaziorako. Fikziotik kanpo ere, euskalkian diharduten solaskideak entzutea gero eta ohikoagoa da, telebistan zein irratiaeren munduan: mahai-inguruetan eta, zer esanik ez, erreportajegintzan eta elkarrizketetan ere.

## 2. Heteroglosia eta gazte-identitatea

Joera heteroglosiko hori nabaria izan da gazteei zuzendutako komunikabideetan. Ezbairik gabe gazteek media-produktuak kontsumitzeko dituzten ohitura are heterogeneagoek bultzatzen dute joera hori (Androustopoulos, 2007: 207-8). Baina, heteroglosia loturik dago, bestalde, gaur egungo gazteek beren identitatea eraikitzeke dituzten joerekin, identitate-eraikuntza horretan hizkuntza-baliabideak kudeatzeko dituzten ohiturekin, zehazkiago.

Hizkuntza-interakzioetan gazteak —edozein hiltunek bezala— bere identitatea eraikitzen du. Bere buruari buruzko irudi bat du proiektatzeko interakzio horretan: ez

bakarrik zer dioen kontuan hartuta, baita zer hori *zelan* dioen kontuan hartuta ere. *Zelan* horrek erabateko garrantzia du gazte-identitatearen eraikuntzan, Pujolar-ek (2001) azaldu bezala:

The use of particular speech varieties in the context of youth culture is an important part of the processes whereby young people construct their views about the world and their relationship amongst themselves and with other social groups (Pujolar, 2001: 7).

Gazte-identitate horren eraikuntzan lehentasunezko lekua dute forma bernakuluek, hots, forma ez-estandarrek eta tokian tokikoek (Wolfram & Schilling-Estes, 1998). Androutsopoulos-ek (2005) agertu bezala, gazteen hizkeraren bernakulizazio-joera da ikerketa soziolinguistikoan hobekien aztertuta eta demostratuta dagoen joera soziolinguistikoa. Labov-ek (1972) defendatu zuen nerabeen hizkera sistema bernakulu egonkorrena dela, eta hainbat soziolinguistikako ikerlanetan ondorioztatu dute gazteek fonologia eta gramatika ez-estandarrek lehenesten dituztela (Chambers, 1995; Romaine, 1984), beren jardun kolokialean tokian tokiko aldaerak eta aldakiak nahiago dituztela (Eckert, 1997, 2000; Kerswill, 1996) eta maila lexikoan, ez-estandartzat hartzen diren baliabide lexikoen aldeko joera erakusten dutela (Androutsopoulos, 1998; Eckert, 2000; besteak beste).

Bernakulizaziorantz mugitzeaz gain, lehen itxura batean kontrako noranzkoan ere mugitu dira gazteen identitate soziolinguistikoak: *translokalizazioa* deitu den noranzkoan (Blommaert, 2008; Leppänen, 2007; Leppänen *et al.*, 2009). Egungo gazteak ez dira antolatzen edo lerratzen tokian tokiko identitateen arabera bakar-bakarrik. Interneten testuinguruan bereziki, gero eta aruntagoa da gazteen artean translokalak diren identitateak ere eraikitzea. Testuinguru berri horretan, gazteentzat nazio-identitatea eta tokiko identitatea bezain garrantzitsua izan daiteke interes eta balio soziokultural berberak dituzten beste gazte-talde batzuekin enpatizatzea; askotan are garrantzitsuagoa da haientzat, gazte-talde horiek milaka kilometrotara badaude ere. Enpatizatzeke helburu horrekin, arrunta da gazteen sareko jardueretan hainbat hizkuntza kontuan hartzen dituen brikolaje soziolinguistikoa. Finlandiako gazteen medioen erabileraren analisiaren ondorioetan honela azaltzen dute Leppänen eta besteek translokalizazio horren gauzatze heteroglosikoa:

...translocality manifests, in particular, in language choice, and in linguistic and stylistic heteroglossia, the coexistence, mixing, and alternation of different languages, registers, genres and styles. Young people's new media activities, were shown to have both an interlingual and intralingual dimension, manifesting in, for example, their selection of English as their language of communication instead of their first language, their drawing on and combination of resources from more than one language, and their selection and mixing of features associated with different registers, genres, and styles of language in their discourse' (Leppänen *et al.*, 2009: 1.100).

Baina, globalizazioak ekarritako homologatzeak hainbat tendentzia orokor ezartzen baditu ere, gazte-identitateak ezin dira guztiz ulertu haien testuinguru soziokulturaletik kanpo, ezta gazte-identitate horiek negoziatzeko gazteek egiten duten hizkuntza-baliabideen kudeaketa ere (Androutsopoulos & Georgakopoulou, 2003: 5). Kudeaketa hori ulertzen nabarmenki laguntzen du, bestalde, testuinguru soziokultural horren barruan testuinguru soziolinguistikoa ere kontuan hartzeak.

Euskararen kasuan, adibidez, translokalizazio-joerak eta bernakulizazio-joerak konbergenteak dira neurri handian. Gaztelania eta frantsesa, ingelesaren parean ez badaude ere, erabilera translokalean hizkuntza sendoak dira. Era berean, gaztelania eta frantsesa testuinguru informaletan erabiltzea ohitura sustraitua da euskal gazteen praktika-komunitatean, baita eremu euskaldunenetan ere (Aboitiz, 2013; Soziolinguistika Klusterra, 2013). Horrek eragin erabatekoa du gazteen media-komunikazioan: sare sozialetan gaztelania erabiltzeko ohitura zabala da euskal gazteen artean (Aparicio, 2012). Baina, aurreratu daiteke, betiere ikerketa sakonagoen faltan, desberdintasunak hauteman direla sare sozialek josten dituzten harreman-sareen arabera: hedadura orokorragoa duten Twitter eta bereziki Facebooken gaztelaniaren erabilera nagusitzen da: harreman-sare hurbilagokoak diren Whatsapp eta Tuentiren kasuan, euskarak leku sendoagoa du (Soziolinguistika Klusterra, 2013: 21 eta 30).

Bernakulizazio-prozesuan ere, bere berezitasunak ditu euskal gazteen komunitateak. Gorago azalduko bernakulizazio-joeren antzekoak antzeman zaizkio: euskalkiak euskal gazte-identitatearen elementu garrantzitsuak dira (Amonarriz, 2008; Amorrortu, 2012; Ortega *et al.*, 2013). Gazteek beren arteko harremanetarako tokian tokiko aldaerak nahiago dituzte, euskara batuaren aldean. Baina euskararen egoera soziolinguistikoak ezartzen ditu bere mugak bernakulizazio-prozesu horretan ere: gazte euskaldun guztiek ezin dute erabilera-testuinguru informalean euskalkietara jo. Haien jabeakuntza-prozesuan eta harreman-sarean ez dute euskalkiekin harremanik izan eta, beraz, ez dituzte euskalkien baliabideak ezagutzen. Hala ere, euskara bigarren hizkuntza (h.a. 2H) duten gazte horiei beren jardunean maiz euskalkietara hurbiltzeko joera antzematen zaie: ezaugarri zenbait integratzen dituzte nagusiki euskara batua den haien euskalkian (Amonarriz, 2008, Ibarra, 2011; Ortega *et al.*, 2013).

Bernakulizazioa, euskararen testuinguru elebidunean, kode-aldaketarekin ere estuki loturik dago. Euskara 1H duten gazteen kasuan, gaztelania/frantsesa-euskara kode-aldaketa guztiz errotuta dago familiaritate datorkien eredu informalean. Bereziartuaren (2014) eta Esnaolaren (1999) ikerlanetatik hauteman daitekeenez, kode-aldaketa estrategiak hainbat funtzio garrantzitsu betetzen ditu euskara 1H dutenen jardun kolokialean ere. Euskara 2H duten hiztun gazteek 1H euskara duten hiztunen ereduari jarraitzen diote askotan (Lantto, 2015). Beste sarritan, testuinguru kolokialerako behar dituzten hainbat baliabide linguistiko ama-hizkuntzan bilatzeko beharra izaten dute (Ibarra, 2011)<sup>2</sup>.

Baina, kode-aldaketa, aurreikus litekeen baino gehiagotan, apropos erabiltzen dute gazte guztiek, «gazte-kutsua» ematen dielakoan (Esnaola, 1999: 31). Izan ere, ez dugu ahaztu behar hizkuntza-polifonia hizkuntzaren alderdi ludikoarekin lotzen dutela gazteek oro har, hizkuntza-sormen eta jolasarekin, hain zuzen ere (Androutsopoulos & Georgakopoulou, 2008). Kode-aldaketaren alderdi ludiko horrek azaltzen ditu, gure ustez, Amonarrizek (2008) agertzen dizkigun gazteen *messeger mezuetan* hauteman daitekeen hizkuntza-brikolaje kasuak:

2. Lantto-k (2015: 45) agertu bezala, kode-aldaketaren erabilera ebaluazio-irizpide desberdinen arabera epaitzen da euskara 1H eta euskara 2H duten hiztunen kasuan. Euskara 1H dutenek testuinguru informaletan euskaratik gaztelaniara egiten duten aldaketa «benetako» «natural»tzat hartzen da; euskara 2H dutenen kasuan, berriz, kode-aldaketa kompetentzia faltatzat hartzen da maizenik.

a:oporretan? Ni, con medio trunkazo-gripe, yokese. Y de secretaria. Hay que joderse! Un estresssss....baina ondo. a ver noiz azaltzen zean? (Amonarriz, 2008: 171).

Umoretsu eta barregarri agertu nahi duen gazteak euskara-gaztelania eredu nahasi batera jotzen du txantxarekin eta informaltasunarekin lotzen duelako. Gazte horrek ezingo luke estrategia hori erabili haren praktika-komunitatean kode-aldaketaren eta umorearen arteko lotura ideologikoa erroturik ez balego. Eckert-ek azaldu bezala, «the selection of variables for making stylistic moves is based in the speakers interpretation of the meaning potential of the available resources» (Eckert, 2003: 43). Euskararen inguruan eginiko hainbat lanek erakusten dute euskara-gaztelania kode-aldaketak eta gaztelania bera erabiltzeak lotura estua dutela txantxarekin (Esnaola, 1999; Bereziartua, 2014; besteak beste).

### **3. *DiDa*Gaztearen diseinu sozioestilistikoa: marko teoriko-metodologikoa eta aztergaiak**

Gorago esan bezala, Gaztea (EITB) euskal gazteei zuzendutako media-produktua aukeratu dugu aztergai lan honetan, *DiDaGaztea* sakonago analisiaren zenbait alderditan. Hainbat baldintza betetzen ditu Gazteak komunikabideen egungo joera heteroglosikoen aztergai bereziki interesgarria izateko. a) Konbergentzia eta parte-hartzea guztiz integratu dituen komunikabidea da Gaztea: *crossmedia* estrategia garbia du eta parte-hartzea sustatzen duten media-estrategiak jarri ditu abian (Elordui, 2015b). b) Gazteei zuzendua da eta, gorago azaldu bezala, aldakortasunaren kudeaketan erabateko eragina du hartzaillearen parametro honek. c) Musika da Gaztearen lanabesa eta gaia eta, gainera, Gazteak duen musikaren nazioarteko ikuspegi komertzialak areagotzen du nabarmenki 2. atalean azaldutako translokalizazio-joera. Horrek guztiak egiten du Gaztea egun medioen diseinu sozioestilistikoan heteroglosiak duen lekua aztertzeo hautagai paregabea.

Medioen diseinua eta hizkuntza-estiloa aspaldi lotu ditu Audientzia Diseinua (*Audience Design*) izeneko paradigma soziolinguistikoa (Bell, 1984) eta Komunikazio Egokitzearen Teoriak ere (*Communication Accommodation Theory*, Coupland, 1984; Giles, Coupland & Coupland, 1991). Biek zalantzan jarri dute Labov-en «attention paid to speech» edo arretan oinarritutako hizkuntza-estiloaren ikuspegia, eta defendatu dute arretaren aldagaiak baino gehiago hartzaillearen aldagaiak baldintzatzen duela estilo-aukera. Hartzaillearen parametroak azaltzen du, besteak beste, arreta noiz jarri behar den eta noiz ez. Ildo horretan, Bell-ek (1984) aldarrikatzen du komunikabideen estiloa audientziaren ezaugarriei egokitzeko estrategia-kluster bat bezala azaldu beharko litzatekeela.

Azken ikerbide horretatik aurrera egin dute azken hamarkada honetan estiloan oinarritutako soziolinguistikaren ikerlerroek ere (Androutsopoulos, 2010, 2012; Auer, 2007; Coupland, 2001, 2007, 2014; Eckert, 2003, 2012; besteak beste), baina Bell-en estiloaren ikuspegi erantzule horri, estiloaren ikuspegi aktiboa, sortzailea, ere gaineratu diote. «Style as strategic persona management» Coupland-ek (2007) agertu bezala. Eckert-ek (2012) honela laburtu ditu soziolinguistikaren «hirugarren olatua» deitu den ildo soziolinguistiko horren oinarri teoriko-metodologikoa:

(..) a theoretical foundation for the third wave, arguing that: a) variation constitutes a robust social semiotic system, potentially expressing the full range of social concerns in a given community; b) the meaning of variables are underspecified gaining more specific meaning in the context of styles, and c) variation does not simply reflect, but also construct social meaning and hence is a force in social change (Eckert, 2012: 87).

Soziolinguistikaren azken ikerlerro horri jarraikiz, Gaztearen analisis hurrengo abiapuntu teoriko-metodologiko hauek izan ditugu kontuan:

- a) Gaur egungo konbergentzia-testuinguru berria komunikabide guztiek integratzen dituzte antzeko baliabide eta modu semiotikoak: irratia bera ere web irratia izatera igaro da eta, telebistak eta zinemak bezala, irudi estatiko eta dinamikoak integratzen ditu bere webguneetan. Media-produktuaren diseinuan zein modu lehenetsi eta zertarako erabakitzeaz gain, modu horiek elkarri nola eragin aurretik planifikatu behar da. Web irrati baten ahotsak edo testu idatziak eta haren irudi dinamikoak eta estatikoak, esaterako, ez dira diseinatzen eta produzitzen bakoitza bere aldetik baliabide semiotikoen gehiketa hutsak balira bezala. Narrazioa hainbat moduk integratzen dutenean, modu bakoitzak narrazioaren alderdi desberdinak bideratzen ditu, baina betiere besteekiko interakzioan (Kress, 2010; Kress & Van Leeuwen, 2001). *DidaGaztearen* hizkuntza-baliabideen kudeaketa, beraz, gainerako modu semiotikoekiko ikertu dugu, lan honetan interakzio horretan sakonduko ez badugu ere (Ikus horretaz Elordui, 2015b).
- b) Medio baten estiloa ez da audientziaren estiloaren ispilu hutsa. Gazteak bere media-identitatea eraikitzen du euskal gazteekiko hartu-emanen eta helburu horrekin hizkuntza-baliabideak estrategikoki baliatzen ditu: medioaren identitate orokorra eta medioko profesionalen eta programen identitatea hizkuntza-aldakortasuna baliatuz kudeatzen du. Horrela, Gazteak aldaeren eta hizkuntza bakoitzaren aldakien inguruan gizarte-esanahia sortzen du: euskal gazteen praktika-komunitateko beste edozein eragilek bezala, bere ekarria egiten du ideologia eta aldaketa soziolinguistikoan.
- c) Komunikabideetako profesionalak gutxitan erabiltzen dute hizkuntza *propia personan*; *altera personan* hitz egiten dute maizenik, «hau ni banintz» «ahots hau banu» (Coupland, 2001: 349). Horrelakoetan estiloaz baino *estilizazioaz* ari garela defendatzen du Coupland-ek (2001), Bakthin-en (1981, 1986) kontzeptua media-estiloaren eztabaidara ekarriz. Bakthin-ek «beste baten hizkuntzaren irudi artistiko» gisa definitzen du estilizazioa, baina gaineratzen du denok estilizatzen dugula gure komunikazio-jardun arruntetan ere: «our speech.... is filled with other's words, varying degrees of otherness or varying degrees of "our-own-ness", varying degrees of awareness and detachment» (Bakthin, 1986: 89).

Estilizazioa ez da, beraz, bakar-bakarrik «artistikoa» eta komunikabideetako karakterizazioarekin soilik lotu behar. Oro har esan daiteke medioetako profesionalak gehienetan identitate hipotetikoa, ez erreala, proiektatzen dutela. Irrati-esateriek, esaterako, maiz estilizatu behar dute aurretik diseinatutako pertsonaia. Aurkezte-

lanean ari direnean ez dira «eurak», ez dira haien egunerokoan bezala hitz egiten ari. Kontuan hartu behar dituzte, besteak beste, medioak eraiki nahi duen identitate orokorra, irрати-generoa (albistegia, elkarrizketa, magazina, etab.) eta funtzioa (informatzea edo entretenitzea, besteak beste).

Gorago esan bezala, Gazteak bere media-estilo propioa eraiki(tzen) du euskal gazte-komunitatearekiko interakzioan, eta helburu horrekin, eta EITBk orokorrean ezartzen dituen mугen barruan, kudeatzen du bere testuinguru soziokulturean dagoen hizkuntza-aldakortasuna. Baina,

- Zelan estilizatu/tzen du hizkuntza bere audientziarekin enpatizatzeke? Zelan irudikatu du Gazteak bere audientzia eta zein hizkuntza-aukera egin ditu helburu horrekin?
- Zelan kudeatu du bere testuinguru soziokulturean dagoen hizkuntza-aldakortasuna *DidaGaztearen* moduak, generoak eta ahotsak estilizatzean?
- Zer-nolako lekua dute estilizazio horietan guztietan euskara batu estandarrek eta aldaera bernakuluek?

Ikerketa-galdera horiek ikusmiran, metodologia triangularra lehenetsi dugu *DidaGaztearen* diseinu estilistikoaren analisirako: a) Batetik, *DidaGaztearen* egungo web irрати-jarduna aztertu dugu: irратitik datozen audiogintza eta web produkzio idatzia eta Facebook eta Twitterreko jarduna. b) Azterketa hori osatu dugu Gaztearen zuzendariari (Jon Lamarka) eta *DidaGazteako* profesionaleri eginiko elkarrizketekin (Joseina Etxeberria, Ainhoa Vitoria, Mikel Fernández eta Edurne Garmendia). Horrela gaineratu diogu diseinu soziolinguistikoaren ikerketari media-profesionalen ikuspegia. c) Zuzeneko behaketa ere baliatu dugu *DidaGaztea* programaren aurrez aurreko saioetan parte hartuz. *Didaren* ahotsen azterketan eta bereziki bat-batekoa/ irakurria parametroa aztertzeko ezinbesteko metodologia-tresna bihurtu da.

Gure analisisa aldaera estandarren eta ez-estandarren kontrasteen analisisan oinarritu dugu, hatsarretzat hartuta estilo soziolinguistikoak erlazionalak direla (Coupland, 2007). Horretarako, *DidaGaztea* programaren web produktuen analisisan lau erreperitorio-kode soziolinguistiko bereizi ditugu, Androutsopoulos-ek (2012) testuinguru elebidun batean filmen analisirako proposatzen duen erreperitorio-banaketa irратиaren kasura ekarri dugu: euskara batu estandarra, euskara batu bertaratu, euskalkia, euskara-gaztelania hizkuntzartekoa («interlanguage» Androutsopoulos, 2012: 310). Euskara batu estandarra izan ezik, gainerako guztiak kode bernakulutzat har daitezke: erabilera ez-estandarrek dira.

- *Euskara batu estandarra* (EBE): kode honen ezaugarri nagusia da nagusiki Euskaltzaindiak euskara batu estandarreko eman dituen gida-lerro eta arau fonetiko-fonologiko, gramatikal eta lexikoak betetzen dituela.
- *Euskara batu bertaratu* (EBB): euskara batu estandarren gida-lerro morfosintaktiko gehienak (aditz-egitura, deklinabide-egitura, etab) erabiltzen dira, baina ez-estandar eta kolokialtzat har daitezkeen ezaugarri fonetiko-fonologikoak (bustidura, tokiko fonetismoak, etab.), eta kolokialtzat hartzen diren lexiko eta esapideak erabiltzen ditu. Euskalkia-batua eta euskara-gaztelania kode-aldaketa arrunta da kode honetan.



- *Euskalkia* (E): euskara batua ez den beste aldaera geografiko baten baliabide linguistikoak erabitzen dira<sup>3</sup>. Corpusean honako euskalkien erabilera agertu zaigu: mendebaldeko euskara (Muxika, Munitibar, Arrasate, Bergara, Markina-Xemein) eta erdialdeko euskara (Ataun, Urnieta).
- *Euskara-gaztelania hizkuntzartekoa* (EGH): gaztelaniarenak diren prosodia eta bestelako ezaugarri fonetiko-fonologikoak ditu. Euskara-gaztelaniaren ezaugarri morfosintaktikoak nahasirik erabiltzen dira. Gaztelaniaren lexiko eta esapide osoak tartekatzen dira. Hitz-hurrenkera ere gaztelaniarena da nabarmenki.

Errepertorioko kode horiek *modu* desberdinetan duten erabilera-banaketa aztertu dugu hasteko. Corpuseko testuak bi modu nagusitan banatu ditugu: idatzizkoa eta ahozkoa<sup>4</sup>. Ahozko corpusa 45 irri-orduk osatzen dute, *Dida* programaren audioak 2014ko ekainaren 9tik 27ra, astelehenetik ostiralera. Bestalde, corpus idatzia 15 egun horietako *gaztea.com* webguneko zenbait testuk osatzen dute eta Facebook eta Twitterren egun horietako bidalketa guztiek.

*Generoak* eta *azpigeneroak* berezi ditugu *DidaGaztea* web irriariaren ahozko corpusean, generoen arteko kode-banaketa aztertzeko. Generoetan honako hauek berezi ditugu:

- *Informatiboak* (Eguneko albistegia, Trafiko-informazioa, Eguraldi-informazioa, Itsasoko informazioa); informatiboetan, baina beste maila batean, Musika / Medioaren efemerideak eta prentsa arrosa.
- *Informazio-saio berezietan* kazetari (edo) aditu bat *Dida* taldearekin solasaldian aritzen da: Kirol-saioa, Teknologia-saioa, Moda-saioa, Surf-saioa, Berriak Parlamentutik saioa, etab.
- *Elkarrizketak*: eguneko pertsonaia-elkarrizketa eta eguneko berriei loturiko elkarrizketak.
- *Umore-saioak*: Jon Gotzonen esaldia, Munduko informazioa, Jon Gotzonen saioa.
- *Lehiaketak*: Txotx lehiaketa, etab.
- *Publizitatea*: Iragarki komertzialak, Gaztearen promozio-iragarkiak eta erakunde publikoenak.
- Eta *bestelakoak*: Medium saioa.

*Ahotsen* analisisian, hainbat erkaketatan jarri dugu arreta: ahots nagusiak (horietan programaren gidari nagusia, Joseina Etxeberria, eta berarekin Edurne Garmendia, Ainhoa Vitoria eta Jon Gotzon) vs gainerakoenak: eguneroko kolaboratzaileak (Esther Murelaga, Miriam Ruiz, Aitziber Azagirre, Jon Baztarrika), informazio-saio berezietakoak (Andoni Urbistondo, Xabi Unanue, Mainer Gorostegi, Onintza Enbeita...) eta noizean behingo kolaborazioak (Saioa Lopez). Kodeen erabilera

3. Honetan ez dugu berezi hizkuntza-erregistrorik, baina horrelako analisi batek osatuko luke zalantzarik gabe ikerketan orain arte eginikoa.

4. Webguneko ikus-entzunezko produkzioa azterketa honetatik kanpo utzi dugu.

erkatu ditugu gai serioak lantzen dituzten ahotsak (Edurne Garmendia, Joseina Etxeberria, Esther Murelaga, Miriam Ruiz, Aitziber Azagirre) eta gai arinak ibiltzen dituztenak (Ainhoa Vitoria, Jon Gotzon, Onintza Enbeita, Jon Baztarrika... ). Azkenik, ahots komikoak (Jon Gotzon, Jon Baztarrika) eta gainerakoak konparatu ditugu.

#### 4. *DidaGaztearen* diseinu sozioestilistikoa: zenbait emaitza

Atal honetan laburtu ditugu moduen (4.1.), generoen (4.2.) eta ahotsen (4.3.) diseinu soziolinguistikoa *DidaGaztearen* azterketan atera ditugun emaitza aipagarrienak. 4.4. atalean bildu ditugu, bestalde, moduen, generoen eta ahotsen analititik ateratako erreperitorio-kodeen banaketa eta banaketa horren inguruan *DidaGazteako* arduradun eta profesionaleri eginiko elkarrizketetan bildutako gidalerro nagusiak ere. Azken atal horretan, konparatu ditugu gure emaitzak medioen soziolinguistikaren zenbait ikerketatan aurkitu direnekin, eta zenbait berdintasun eta desberdintasun hauteman ditugu:

##### 4.1. Banaketa moduetan

Gorago esan bezala, *modu* desberdinetan lau erreperitorio-kodeek duten erabilera-banaketa aztertu dugu corpus idatzian, 2014ko ekainaren 9tik 27rako *gaztea.com* webguneko zenbait testu eta Facebook eta Twitteren bidalketa eta txio guztiak kontuan harturik. Azterketa horretatik honako emaitza hauek atera ditugu: a) Euskara batu estandarra da nagusiki *Gaztearen* idatzizko testuetan erabiltzen den erreperitorio-kodea. b) *DidaGazteak* ez du erabiltzen ez EBB ezta E idatzirako, ez behintzat gure corpora osatzen duten testuetan. Azken bi aldaera horiek baliatzen dituzten adibide gutxiak Twittereko birtxioetan eta Facebooken *DidaGaztearen* hartzaileek eginiko erantzunetan aurkitu ditugu. c) Kode-aldaketa kasuak sare sozialetako Facebook eta Twittereko bidalketa eta txioetan aurkitu ditugu: nagusiki ingelesaren eta gaztelaniaren lexiko eta esapideak dira, sarritan komatxoaren artean adieraziak:

- Alkoholarekin duen arazoa islatu nahi izan du PSYk bideo klip berrian! Zein nahiago? Hau ala **Gangnam Style?** <http://ow.ly/xSPcZ>
- Pablo Iglesiasen kontrako «**pintadak**» agertu dira «**proetarra**» eta «**antiespañol**» deitu diote [#didagaztea pic.twitter.com/LaNcl0h1H6](https://pic.twitter.com/LaNcl0h1H6)

Ingelesetik eta gaztelaniatik hartutako maileguak ere ohikoak dira *DidaGaztearen* bi sare sozialetako testuetan:

- Bilbao BBK Live jaialdiko **playlista** osatu dugu! Entzun han izango diren taldeen kantuak! [@bilbaobbklivehttp://ow.ly/xVp3X](http://ow.ly/xVp3X)
- Aitor Mendizabal pilotaria didan! Antzuolatarrak kantu **kañero**1 eskatu digu eguna ondo hasteko! <http://bit.ly/SMLkEV> **#deskontrol** eskerrik+!

Ingelesa-euskara eta inoiz katalana-euskara kode-aldaketa kasuak aurkitu ditugu, batez ere sare sozialetan *DidaGazteak* egiten dituen agurretan:

- Egun on!!! **good morning everybody!!** [#didagaztea pic.twitter.com/QHrVdswi2l](https://pic.twitter.com/QHrVdswi2l)
- Egun on, **bon dia**, familia!! [#didagazteapic.twitter.com/6bmDqvjy9P](https://pic.twitter.com/6bmDqvjy9P)

## 4.2. Banaketa generoetan

Hurrengo taula honetan bildu ditugun genero eta azpigeneroetan aztergai ditugun kodeek duten banaketa ageri da aste bateko adibidean.

### 1. taula. Hizkuntza-kodeek generoetan duten banaketa (2014/6/9-2014/6/13).

GENEROA	AZPIGENEROA	KODEA*
<b>Informatiboak</b>	Eguneko albistekak	EBE
	Trafiko-informazioa	EBE
	Eguraldi-informazioa	EBE
	Itsasoko informazioa	EBE
	Musika-informazioa	EBE
	Musika / Medioaren efemerideak	E-Arrasate
	Informazio arrosa	E-Arrasate
<b>Informazio-saio bereziak</b>	Kirol-saioa	E-Urnieta
	Teknologia-saioa	EBB
	Moda-saioa	EBB
	Telesailez	EBB
	Txikien saioa	EBB
	Pitilin News	EBB
	Berriak Parlamentutik	E-Muxika
<b>Informazio-solasaldia</b>	Informazioaren inguruko	EGH, EBE, EBB, E
	Dida kideen solasaldiak	
<b>Elkarrizketak</b>	Eguneko elkarrizketa (ospetsu bati)	EBB, EBB, E
	Eguneko gaiari loturiko elkarrizketa	EBB, EBB, E
<b>Umore-saioak</b>	Jon Gotzonen esaldia	EGH
	Jon Gotzonen saioa	EGH
<b>Lehiaketak Publizitatea</b>	Munduko informazioa	EGH
	Txotx lehiaketa	E, EBB, EBE
	Iragarki komertzialak	EBE
	Iragarki instituzionalak	EBE
	Gaztearen iragarkiak	EBE
<b>Bestelakoak</b>	Medium saioa	EBE, E, EBE

\* EBE: Euskara Batu Estandarra, EBB= Euskara Batu Bertaratua, E= Euskalkia (nongoa), EGH= Euskara-Gaztelania Hizkuntzartekoa.

- *Informazio-generoetan* nagusiki euskara batu estandarra (EBE) erabiltzen da. Hala da Eguneko albisteak, Eguraldi-informazioa, Trafiko-informazioa, Itsasoko informazioa saioetan eta nagusiki musika-taldeen eta kantuen inguruan Joseina Etxeberriak ematen duen informazioan ere. Lehen hiru azpigeneroak irakurriak dira; Etxeberriarena, berriz, bat-batekoa. Genero informatiboetan beste multzo bat osatzen dute genero informatibo arinagoak direnek: musika eta medioaren efemerideei eskainitako tarteak Ainhoa Vitoriak gidatzen ditu eta Arrasate aldeko euskalkira hurbiltzen den kodea (E-Arrasate) erabiltzen du.
- *Informazio-saio berezietan*, berriz, aniztasun handia aurkitu dugu. Kodeen erabileran genero motarekin loturik daude batzuk. Adibidez, gai arinekin lotuak direnak (moda-saioa, Pitolin News, etab.) euskara batu bertaratua (EBB) eta euskalkia erabiltzen dira maizenik. Horren barruan, esatariaren araberrako aldakortasuna aurkitu dugu: batzuek joera nabaria dute euskalkiaren formak euskara batuarekin tartekatzeke; beste batzuek, berriz, euskara batu bertaratu horretan kode-aldaketa ere integratzen dute.
- Informazioaren inguruko *solasaldietan DidaGaztea* programaren lau esatari nagusiek parte hartzen dute, eta bakoitzak bere rola betetzen du ahotsen analisisan zehazkiago azalduko dugunez (ikus 4.3.). Solasaldi hauetan beste saio serio batzuetan EBE nagusiki erabiltzen duten esateriek ere (Joseina Etxeberria eta Eurne Garmendia) EBBrantz jotzen dute eta informalagoak diren ezaugarri fonetiko-fonologiko eta gramatikalez gain, lexiko eta esapide mailako kode-aldaketa ere integratzen dute. Jon Gotzonek solasaldi hauetan EGH erabiltzen du eta Ainhoa Vitoriak, berriz, E-Arrasate kodea.
- *Elkarrizketa* generoan ere nahikoa aniztasun handia aurkitu dugu: bai egunero ospetsu bati egiten zaion elkarrizketan eta bai eguneroko gaiarekin loturikoetan ere. Elkarrizketa *DidaGaztea* programako esatari guztiek gidatu ohi dutenez, solasaldian agertutako kode guztiak agertzen dira. Elkarrizketatuek, bestalde, eurek aukeratzen dute erabili nahi duten aldaera. Corpusean EBE, EBB eta E erreperitorio-kodeak ediren ditugu elkarrizketetan.
- *Umore-saioetan* bikoizketa-aktore batek (Mikel Fernández) karakterizatzen ditu Jon Gotzon Aldaparena eta Jon Baztarrika pertsonaiak. Jon Gotzonek EGH kodea erabiltzen du. Burgoseko «euskaldun berri» baten parodia da Jon Gotzonen saioa (Jon Gotzonen esaldia, Jon Gotzonen tarteak). Jon Baztarrika jatorriz gasteiztarrek mundu-mailako berriemaile baten erreportajeak parodiatzen ditu, eta EGH kodea erabiltzen du horrek ere.
- *Lehiaketa* nagusi bat du *DidaGazteak*, Txotx lehiaketa izenekoa. Lehiaketa horretan galdera-gidaria Ainhoa Vitoria da, eta E-Arrasate erabiltzen du. Lehiaketa horrek ateak zabaltzen dizkio entzulearen parte-hartzeari eta lehiakideen artean erreperitorio-kode guztiak aurkitu ditugu, baina EBB eta Eren erabilera da nagusi.
- *Publizitatean* bereizi ditugun hiru azpigeneroetan EBE erabiltzen da. Guztiz betetzen da iragarki komertzialetan eta instituzionaletan eta Gaztearen promoziozko iragarkietan ere.

- Azkenik, *Bestelakoak* atalean sailkatu dugun Medium saioan mediumak (Mikel Lizarralde) EBE erabiltzen du. Saioan parte hartzen duten entzuleen artean EBB eta E dira kode nagusiak.

### 4.3. Banaketa ahotsetan

Lau dira *DidaGaztea* programaren ahots nagusiak: Joseina Etxeberria, Jon Gotzon, Edurne Garmendia eta Ainhoa Vitoria. Pertsonaia bakoitzaren identitateak lotura estua du pertsonaiak darabilen kodearekin.

- *Joseina Etxeberriak*, «pailazo zuri»aren papera betetzen du *DidaGaztea* saioan. Hala definitzen du berak bere burua: «(...) ni naiz pailazo zuriarena egiten duena, eta korrekzio horren barruan mugitu behar naiz beti» (Etxeberria, 2014-06-19). Gidari- eta moderatzaile-lanak egiten ditu Joseina Etxebarriak. Ez du gehiegikeriarik onartzen, ez lantzen diren albisteen gaietan, ezta albisteetan agertzen diren pertsonen inguruko komentarioetan ere. Joseina, besteekin konparatuta, serioa eta orekatua da, eta haren euskarak seriotasun eta oreka horren ispilua izan nahi du: «Bai Edurnek, bai Ainhoa eta bai nik ere jasotasun horren barruan mugitu behar dugu eta, gainera, itxura hori eman behar dugu. Ez litzateke sinesgarria izango pailazo zuriaren papera egiten duen batek berak egingo balitu hankasartze handienak». EBE darabil nagusiki eta hiztegi eta esapide aberatsak erabiltzen ditu, betiere gazte-ukitu batzuk dituela. Moderatzaile-lanak egiten ditu euskararen kasuan ere: askotan kritikatzan ditu solasaldian beste batek botatako erdarakadak edo euskara «zuzenago» batera ekartzen du solaskideren baten forma «ez-zuzena».
- *Jon Gotzon Aldaparenak* Burgoseko «euskaldun berri» bat parodiatzen du. Homosexuala eta misoginoa da eta neurri gabeko ikuspuntu kritikoa du. Jon Gotzonen pertsonaia apurtzailea da zentzu guztietan, baina bereziki kritikoa da euskal munduarekin: «Jon Gotzon kritikoa da euskal munduarekin, erdal munduarekin, feminismoarekin, matxismoarekin, gauza guztiekin da kritikoa, baina bereziki euskal munduarekin» (Etxeberria, 2014-06-19). Jon Gotzonek bi saio nagusi egiten ditu: Jon Gotzonen esaldia eta Jon Gotzonen tartea. Bietan euskara-gaztelania hizkuntzarteko kodea erabiltzen du, «euskañol», berak irrati-saioan dioen bezala.
- *Edurne Garmendiak* bi rol nagusi betetzen ditu: batetik, eguneko albisteak ematen dituenean irudi guztiz informatiboa agertzen du. EBE ibiltzen du horrelakoetan eta testu irakurriaren egitura eta lexikoa nabaria da haren jardunean. Bestalde, Edurne Garmendiak solasaldian parte hartzen du eta EBB eredura aldatzen da solasaldi horietan: euskara kolokialarenak diren forma arruntak ibiltzen ditu. Inoiz, kode-aldaketa ere erabiltzen du, bereziki Jon Gotzonekin solasaldian denetan. Aldi berean, Edurne Garmendiak zuzentzen dizkio Jon Gotzoni sarritan erabilitako «erdarakadak».
- *Ainhoa Vitoria* ahots gazteena da *Didan*, freskoa, goxoa. Albisteak ematen ditu, baina beti gai arinekin lotuak direnak: efemerideak, prentsa arrosa. Ainhoa Vitoriak Arrasate aldeko euskarara hurbiltzen den euskara ibiltzen

du, ez da baina asko aldentzen euskara batu estandarretik. Euskalki nahikoa estandarra ibiltzen du, betiere zuzentasunaren barruan.

*Didaren* ahots guztiak kontuan harturik (ikus. 2. taulan aste bateko adibidea), aztergai izan ditugun lau erreportorio-kodeen banaketan zenbait joera sistematiko hautematen ditugu. *DidaGazteako* profesionalei eginiko elkarrizketek ere agerian uzten dute diseinu soziolinguistiko pentsatu bati erantzuten dion banaketa dela:

- *Ahots nagusiak vs Gainerako ahotsak*. *Didaren* ahotsek duten rolaren arabera, ikusten dugu esatari nagusi guztiek ez dutela erabiltzen EBE (Ainhoa Vitoria eta Jon Gotzon dira salbuespen argienak); bai, berriz, programaren gidari nagusiak. Joseina Etxeberriak EBEra nahikoa estuki hurbiltzen den aldaera darabil, betiere informaltasunarekin lotu daitezkeen zenbait ukiturekin. Gazteak bere hizkuntza-politikan argi ikusten du ahots nagusien eta gainerakoen arteko bereizketa hau. Surfaren inguruko informazio-saioaz ari dela, honela dio Lamarkak:

Hiru ahotsetan egingo da pastila: ahots nagusiak euskara batuaz egingo du, Asier Muniainek bere Zarauzko euskararen eta gero Bergarako neska bat daukagu eta horrek, ojo ez da esatari nagusia, horrek bere euskararen egingo du (Lamarka, 2014-06-09).

- *Ahots informatiboak vs Ahots ez-informatiboak*. Ahots informatiboek EBE erabiltzen dute: Eguneko albistegietan Edurne Garmendiak eta Informatiboetako hiru ahotsek ere (Esther Murelaga, Miriam Ruiz eta Aitziber Azagirre). Magazinetako ahotsek, berriz, kode bernakuluetara jotzen dute.

Iruditzen zaigu albiste serioek erredakzio serio bat eskatzen dutela, eta besteek, aldiz, kontatzea eskatzen dute. Inportantzia bera ematen diegu baina, aldi berean, ez diegu inportantzia bera ematen. Kontraesan bat dirudi, ezta? Desberdintzen ditugu eduki aldetik eta forma aldetik (Etxeberria, 2014-06-09).

- *Ahots serioak vs Ahots arinak*. Seriotasunaren irudia estilizatu nahi duten ahotsek EBE erabiltzen dute: bai ahots informatibo serioek baita itxura hori eman nahi dutenek ere. Azken horren adibide argia da, bestalde, Mikel Lizarralde medium-aren saioarena: Lizarralde bere saioari eman nahi dion seriotasun-kutsua agerian da bere euskararen erabileran. EBE ibiltzen du, betiere oso estilo formal baten barruan. Ahots arinagoak direnek, berriz, kode bernakuluak (EBB, euskalkia, EGH) erabiltzen dituzte: Modaren inguruko saioan eta Berriak Parlamentutik eta Pitilin News saioetan, esaterako.
- *Ahots komikoak vs Ahots ez-komikoak*. Bi ahots komiko daude *DidaGaztean*: Jon Gotzon eta Jon Baztarrika, eta biei ere Mikel Fernández aktoreak jartzen die ahotsa. Jon Baztarrika Gasteizkoa da, euskaldun berria, festazalea da eta nahikoa izaera zabarra du oro har. Jon Baztarrikak, Jon Gotzonek bezala, EGH erabiltzen du eta, oro har, hizkera nahikoa «pasota» esan daitekeena.

## 2. taula. Hizkuntza-kodeek ahotsetan duten banaketa (2014/6/9-2014/6/13).

AHOTSAK	Rola'	GENEROA	Formal-ta-sun-maila''	Gai-tipo-logia'''	Bat-bateko-tasuna****	KODEA
<b>Joseina Etxeberria</b>	NN	Musika-informazioa / Informazioaren inguruko solasaldiak	S/I	S/A	B	EBE/EBB
<b>Edurne Garmendia</b>	N	Eguneko albisteak / Informazioaren inguruko solasaldiak	S/I	S/A	I/B	EBE/EBB
<b>Ainhoa Vitoria</b>	N	Musika / Medioaren efemerideak / Prentsa arrosa / Informazioaren inguruko solasaldiak	I	A	I/B	E-Arrasate
<b>Jon Gotzon</b>	N	Informazioaren inguruko solasaldiak / Jon Gotzonen esaldia / Jon Gotzonen saioa	P	A	B/AP	EGH
Esther Murelaga	EK	Trafiko-informazioa	S	S	I	EBE
Miriam Ruiz	EK	Eguraldi-informazioa	S	S	I	EBE
Aitziber Azagirre	EK	Itsasoko informazioa	S	S	I	EBE
Andoni Urbistondo	KB	Kirol-saioa	S	N	AP	E-Urnieta
Onintza Enbeita	KB	Berriak Parlamentutik	I	A	B	E-Muxika
Xabi Unanue	KB	Teknologia-saioa	S/I	N	AP	EBB
Maidor Gorostegi	KB	Moda-saioa	I	A	AP	EBB
Ugaitz Alegria	KB	Txikien saioa	I	N	AP	EBB
Aitor Caracciolo	KB	Telesailez	I	A	B	EBB
Alain Ibarra	KB	Pitilin News	I	A	B	EBB
Jon Baztarrika	KB	Munduko informazioa	P	A	AP	EGH
Mikel Lizarralde	KB	Medium saioa	S	A	B	EBE

\* NN = Programaren esatari/gidari nagusia, N = esatari nagusia, EK = eguneroko kolaboratzailea, KB = kolaboratzaile berezia.

\*\* S = serioa, I = informala, P = parodia.

\*\*\* A = gai arina, S = gai serioa, N = gai neutroa.

\*\*\*\* I = irakurria, AP = aurretik prestatua, B = bat-batekoa.

- *Over ahotsak vs Reported ahotsak*. *DidaGaztean* eginiko erreportajeetan bereizketa argia dago *over* eta *reported* ahotsen artean. Gehienetan erreportajeen *over* ahotsek EBE erabiltzen dute; tokian tokiko erreportajegileen eta, zer esanik ez, albistearen lekukoen ahotsetan erreperitorio-kode guztiak aurkitu ditugu, baina nagusiki bernakuluak (E, EBB). Salbuespena Jon Baztarrika berriemailea da. Gorago esan bezala, Mikel Fernándezek bikoiztutako ahotsak EGH erabiltzen du.
- *Audientziaren ahotsetan* euskal gazteen komunitatean aurki daitezkeen aldaera guztiak hauteman ditugu: EBE, EBB, euskalkia eta EGH kodeak, bereziki Txotx lehiaketan.

#### 4.4. Erreperitorio-kodeen banaketa

Moduen, generoen eta ahotsen analisisian ikusi ditugun emaitzek eredu nahikoa sistematikoak erakusten dizkigute aztergai izan ditugun kodeen erabileran. Estandar/bernakuluen erabileran eredu ohikotzat hartu direnekin («constant pattern» Androutsopoulos, 2012: 753) erkaturik, berdintasun ugari hautematen ditugu, baina baita zenbait desberdintasun ere.

*Euskara batu estandarrek* estandarrek izan ohi duten erabilera-eremuak betetzen ditu *DidaGaztea* programaren kasuan ere: web testu idatziek, genero eta ahots informatiboek, genero eta ahots serioek, *over* ahotsek EBE erabiltzen dute nagusiki. EBEk lehentasunezko lekua du ahots informatibo eta serioetan, ingelesaren eta alemanaren inguruko ikerketek erakutsi bezala (Androutsopoulos, 2012: 753). Esatari nagusien artean bestelako kodeak ere agertzen bazaizkigu ere (EBB, E, baita EGH ere), ahots nagusi edo gidari nagusientzat EBE lehenesten da Gaztearen hizkuntza-politikan:

(...) Euskal Herria oso aberatsa da eta sinesgarritasuna bilatzen badugu, natural hitz egin behar dugu. Hori bai, egia da Joseina bezalako pertsona batek, ardatz nagusia daramanak, euskara batua erabili behar duela, eta euskara ahalik eta aberatsena erabiliko du (Lamarka, 2014-06-09).

*Euskara batu bertaratuak* lehentasunezko lekua du *DidaGaztean*, minutu kopuruari dagokionez behintzat. Euskara batu informaltzat jo daitezkeen hori esatari nagusiek ere erabiltzen dute zenbait generotan, solasaldian, esaterako. Gaztean lehenesten da gazte-irudia duen hizkera hori, betiere sinesgarritasunaren mesedetan, Lamarkaren esanetan:

(...) Esatariek kalean ere euskara erabiltzen dute, tabernetan, kontzertuetan... Zarauzko jendea daukagu, Bergarako jendea, Bilboko jendea eta erabiltzen dute lagunekin erabiltzen duten euskara bera, betiere «bonbila gorria» piztuta dutela, hori ere egia da. Baina komunikabide baten araurik garrantzitsuena sinesgarritasuna da (Lamarka, 2014-06-09).

Euskara batu bertaratuak lotura estua du ez-formaltasunarekin eta gai arinekin: Alain Ibarra Pitilin News saiokoak, Aitor Caracciolo telesailen erregeak, Maider Gorostegi modan adituak eta Koldo Intxausti apaiz heavyak erabiltzen dute,



besteak beste. Baina euskara batua bertaratzea, euskalkiaren ezaugarri batzuekin koloreztatzea, Gaztearen hizkuntza-politikaren oinarri bat da. Lamarkaren hitz hauek Gazteako Amaia Artetxe esatari nagusiaz ari dela nahikoa argiak dira zentzu horretan: «Ez dugu mutur batera eramango. Amaia Artetxek ez du Bermeoko euskaraz egingo, baina bai gustatzen zaigu ukitu bat izan dezan» (Lamarka, 2014-06-09).

Bestalde, audientziaren parte-hartzea sustatzen duten formatuetan, lehiaketetan adibidez, kode horren erabilera oso zabala da. Txotx lehiaketan parte hartzen duten audientziako gazteen artean, esaterako.

*Euskalkiak* ohikoak dira *DidaGaztearen* Txotx lehiaketa horretan, baina ez genero horretan bakarrik; izan ere, euskalkiek pisu nabarmena dute oro har *DidaGaztearen* diseinu sozioestilistiko osoan. Esatari nagusi batek (Ainhoa Vitoria) erabiltzen du euskalki batera hurbiltzen den kodea, baita hainbat kolaboratzailek ere: Onintza Enbeitak, Andoni Urbistondok eta Karmele Izagirrek, esaterako.

Mendebaldeko euskalkiari dagokionez, bai Jon Lamarkak eta bai Joseina Etxeberriak ere azpimarratzen dute mendebaldeko gazteengana heltzeko beharrak azaltzen duela mendebaldeko euskararen erabilera *DidaGaztean*. Honela dio Lamarkak esatarien kontratazioaz ari dela: «Euskalki diferenteak izan behar ditugu Gaztean. Bestela, jai daukagu. Gazteak audientzia datu oso onak ditu Bizkaian eta nik horko euskaldun on bat lehenetsiko dut, zalantzarik gabe» (Lamarka, 2014-06-09).

Hori bai, euskara batu estandarrarekin erkatzen badugu, ikusten dugu nagusiki gai informatibo arinekin eta, oro har, ahots informalekin lotzen dela euskalkia, Coupland-ek (2001, 2007 eta 2014) ingeleserako aldarrikatu bezala.

Dialektoen erabileran publizitatearen generoetan hauteman dugu Androutsopoulos-ek (2010) egungo medioetan ohiko eredutzat jotzen duenetik gehien aldentzen dena. Androutsopoulos-ek (2010) azaldu bezala, publizitatea aztergai duten ikerketen emaitzek (Coupland, 2007; Johnstone, 2004, 2006; besteak beste) agerian utzi dute publizitatearen munduan dialektoak erabiltzeko joera gero eta zabalagoa dela. Erabilera hori produktuen eta eremu geografikoen «benetakotasunaren kutsu»arekin lotu izan da hainbat ikerketa soziolinguistikotan (Coupland, 2007): dialektoa erabiltzeak eremu geografiko jakin batean ainguratzen du produktua eta horko «benetakoa» dela indartzen du.

Baina Androutsopoulos-ek (2010) azaldu bezala, gaur egun publizitatearen marketinean dialektoen erabilera ez da horretara mugatzen:

The meanings of localness in advertising, then, are complex and multilayered and despite enduring traditional stereotypes, local speech is sometimes coupled with high social status and recontextualised as a symbol of collective or corporate identity (Androutsopoulos, 2010: 744).

*DidaGaztearen* publizitatean ez dugu euskalkien erabilera hori aurkitu: aztertutako publizitate mezu guzti-guztiek EBE eredua erabiltzen dute. Programaren

beste genero batzuetan ez bezala, euskalkiek inolako lekurik ez dute programaren publizitatean. Jon Lamarkaren hitz hauek argitzen digute horren arrazoa:

Idatziz eta irratitik ematen diren iragarki guztiek Artetxeren<sup>5</sup> eskuetatik pasa behar dute. Gaztearen promozio-gauzez ari naiz. Publizitateak bere bidea darاما: komertzialetatik pasatuko da euskara departamentura eta gero errealizatorako iritsiko da eta han grabatu egingo da. Dena euskara batuaz (Lamarka, 2014-06-09).

EITBren hizkuntza-politikaren irizpide orokorren arabera, beraz, Gaztearen promoziorako iragarkiek zein iragarki komertzial guztiek pasatu behar dituzte EITBren hizkuntza-zerbitzuaren kontrolak eta publizitaterako ezarri den politikaren arabera EBE da erabil daitekeen aldaera bakarra.

*Euskara-gaztelania hizkuntzartekoaren* erabilera Jon Gotzonek eta Jon Baztarrikak erabiltzen dute nagusiki testuinguru komikoetan eta parodietan. Lamarkaren hitzetan haiek dira Gaztean «euskañol» hori erabiltzeko lizentzia duten bakarrak: «Jon Gotzonek bakarrik dauka “euskañola” erabiltzeko baimena. Kutsatu egiten bada mahaiko besteengana, orduan hor arazo bat daukagu (...)» (Lamarka, 2014-05-28).

Honetan Gazteak azken urte hauetan medioen munduan dagoen joera orokor bati jarraitzen diola dirudi. Izan ere, azken hamarkada honetan hainbat soziolinguistikako ikerlanek agerian utzi dute kode-aldaketa karakterizazioan erabiltzeko joera gero eta ohikoagoa dela, baita hizkuntza gutxituen medioetan ere (Jaffe, 2000; Kelly-Holmes & Atkinson, 2007; Atkinson & Kelly-Holmes, 2011). Jon Gotzonek euskal munduari eta euskararen inguruko hizkuntza-politikari egiten dien kritika eta euskara ikasiarekin egiten duen lotura komikoa ere, euskararen antzeko egoera soziolinguistikoak bizi dituzten beste hizkuntza batzuen medioetan ere ediren dira: irlandararen kasuan, «school Irish speaker»-en hizkeraren kasua aztertu dute Atkinson & Kelly-Holmes-ek (2011) komedia batean, eta azaltzen dute Irlandako identitate soziolinguistiko hibridoak pantailara eramateko joera zabalago baten adibide gisa. *DidaGaztearen* kasuan identitate hibrido horiek integratzea normalizazio-ekimenez ere hartzen da, *DidaGazte*ko Joseina Etxeberraren hitzok agerian uzten duten bezala:

Euskara muga modura ikusten duten horiengana, geu pixka bat mugitu. Pentsatu dezatela «Gertuko sentitzen dut». Hori da hori lorpena. Hori ikusten dut kristoren lorpena (...) Euskaraz kili-kolo dabilen horrek pentsatuko du «(...) si ahí hay un tío que habla como yo, o peor que yo» (...) Guk zubi-lana egiten badugu, erdal munduaren eta euskal munduaren artean. Jo, kristoren lana dago hor. Eta hori egin behar dugu euskaldun askok (Etxeberria, 2014-06-19).

## 5. Ondorioak

Heteroglosia da gaur egungo komunikabideen ezaugarri soziolinguistiko aipagarriena. Aldaketa gradual bat gertatu da medioetan, baita elebakartasunaren ideologia eta praktika nagusi izan diren media-testuinguruetan ere. Hizkuntza-dibertsitate hori bereziki gazteei zuzendutako komunikabideetan gertatu da, gazteen medioen onsumo eta parte-hartze joerek bultzatua.

5. Jesus Artetxez ari da, EITBko Euskara Zerbitzuetako langileaz.

Gaztea aldaketa horren adibide adierazgarria da. *Crossmedia* eta parte-hartzea sustatzen dituen media-estrategia baten ikuspegitik, azken hamar urteotan Gaztea pasatu da euskara batu estandarra soilik kontuan hartzen zuen diseinu soziolinguistiko normalizatzaile batetik, bestelako aldaera geografikoak eta hizkeramailak kontuan hartzen dituen eredu heteroglosiko batera. Gazte-audientziarekin enpatizateko, gazteen praktika-komunitatean dauden ohitura sozioestilistikoak kontuan hartzen dituen hizkuntza-estrategia jarri du abian.

Hizkuntza-estrategia horretan Gazteak gazte-hizkerarekin loturiko ezaugarriak integratu ditu bere diseinu sozioestilistikoan. Euskal gazteen praktika-komunitateak ezaugarri duen bernakulizaziorako joera txertatu du diseinu horretan: bai euskalkiaren erabileran eta bai euskara batu bertaratuaren erabileran ere. Baina, *DidaGaztearen* moduen, generoen eta ahotsen analisi sakonago batek agerian uzten du euskara batu estandarrek aldaera estandarrek izan ohi duten lehentasunezko lekua betetzen duela *DidaGaztean* ere: genero informatiboek, ahots nagusiek eta serioek lehenesten dute kode hori, beste hizkuntza batzuen medioetan ohi bezala. Bernakulutzat jo daitezkeen euskal kodeak (euskara batu bertaratu eta euskalkia) maizenik erabiltzen direnak dira; baina, nagusiki, genero, ahots eta gai informalekin lotzen dira *DidaGaztearen* diseinuan.

Gazte-komunitate elebidun bat du Gazteak audientziatzat, eta identitate soziolinguistiko hibridoak ere txertatu ditu bere diseinu sozioestilistiko horretan. Hori bai, kode-aldaketaren erabilera gordinenak, Jon Gotzonen erabilerak kasu, parodiaren eremura mugatzen ditu eta, Woolard-ek (1995: 225) dioen bezala, parodiak beti du esanahi hibridoak: gorazarrea eta gaitzespena izan daiteke aldi berean.

Jon Gotzonen kode-aldaketaren erabilera Woolard-en azken esanahi horretatik ikusita, ez dago Gaztearen diseinu sozioestilistikoan nabaria den hizkuntza-politika kontrolaren eraginetik pentsa litekeen bezain urrun. Hizkuntza-politika kontrol hori aurretik prestatutako generoetan (publizitatean, batez ere) ikus daiteke nabarmenki; horrelakoetan bestelako irizpide sozioestilistikoen gainetik dago oraindik ere elebakartasun-praktika.

## Bibliografia

- Aboitiz, J. (2013): *Bermeoko gazteak eta euskara*, Hiznet Hizkuntza-plangintza, gradu ondoko amaierako lana.
- Amonarriz, K. (2008): «Gazte hizkerak, hizkera gazteak», *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, **68**, 167-183.
- Amorrortu, E. (2012): «Talde estrategikoen euskararekiko jarrerak: gazte euskaldunak, erdaldunak eta euskaldun berriak», in *Marcos interpretativos de la realidad social contemporánea / Egungo gizarte errealtatea interpretatzeko bideak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Androutsopoulos, J. (2005): «Research on Youth Language», in U. Ammon, N. Dittmar, K.J. Mattheier eta P. Trudgill (ed.), *Sociolinguistics: An International Handbook on the Science of Language and Society*, 2. edizioa, Mouton de Gruyter, Berlin/New York, 1496-1505.

- , (2007): «Bilingualism in the mass media and on Internet» in M. Hellers (arg.), *Bilingualism: a Social Approach*, Palgrave Macmillan, New York, 207-230.
- , (2010): «The study of language and space in media discourse», in P. Auer & J.E. Schmidt, *Language and Space. An international handbook in Linguistic variation. Theories and Methods*, Mouton de Gruyter, Berlin/New York, 740-758.
- , (2012): «Repertoires, characters and scenes: Sociolinguistic difference in Turkish-German comedy», *Multilingua*, **31**, 301-326
- eta Georgakopoulou, A. (2008): «Youth, discourse, and interpersonal management» in G. Antos eta E. Ventola (arg.). *Handbook of Interpersonal Communication*, Mouton de Gruyter (Handbooks of Applied Linguistics; 2), Berlin, New York.
- eta Georgakopoulou, A. (arg.) (2003): *Discourse Constructions of Youth Identities*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- Aparicio, M. (2012): *Bipuntuzero. Euskara, web 2.0 eta gizarte sareak*, Hiznet Hizkuntzaplantzintza, graduondoko amaierako lana.
- Atkinson, D. & Kelly-Holmes, H. (2011): «Codeswitching, identity and ownership in Irish radio comedy», *Journal of Pragmatics*, **43**, 251-260.
- Auer, P. (2007): *Style and Social Identities: Alternative Approaches to Linguistic Heterogeneity*, Walter de Gruyter, Berlin.
- Bakhtin, M. (1981): *The dialogic imagination*, Holquist, M. & Emerson, C. (arg.), University of Texas Press, Austin.
- , (1986): *Speech genres and other late essays*, Vern W. McGee, Holquist, M. & Emerson, C. (arg.), University of Texas Press, Austin.
- Bell, A. (1984): «Language style as audience design», *Language in Society*, **13**, 145-204
- Bereziartua, G. (2014): *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo*, doktoretza-tesia, UPV/EHU.
- Blommaert, J. (2008): *Grassroots literacy: Writing, identity and voice in Central Africa*, Routledge, Londres.
- eta Verschuieren, J. (1998): «The role of language in European nationalist ideologies», in B. Schieffelin, K. Woolard & P. Kroskrity (arg.), *Language ideologies: Practice and theory*, Oxford University Press, New York, 189-210
- Busch, B. (2006): «Changing media spaces: the transformative power of heteroglossic practices», in C. Mar-Molinero & P. Stevenson (arg.), *Language ideologies, policies and practices*, Palgrave Macmillan, Basingstoke, 206-219.
- Chambers, J.K. (1995): *Sociolinguistic Theory: linguistic variation and its social significance*, Balckwell, Oxford.
- Coupland, N. (1984): «Accommodation at work: some phonological data and their implications», *International Journal of the Sociology of Language*, **46**, 49-70.
- , (2001): «Dialect stylization in radio talk», *Language in society*, **30**, 345-375.
- , (2007): *Style. Language variation and identity*, Key topics in sociolinguistics, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (2009): «The mediated performance of vernaculars», *Journal of English Linguistics*, **37: 3**, 284-300.
- , (2010): «Language, Ideology, Media and Social Change», *Swiss Papers in English Language and Literature*, **24**, 55-79.
- , (2014): «Sociolinguistic change, vernacularization and broadcast British media», in J. Androulopoulos (arg.), *Mediatization and Sociolinguistic Change*, Mouton de Gruyter, Berlin/Boston.
- Culpeper, J. (2001): *Language and characterisation. People in Plays and other texts*, Pearson Education Limited, Edinburgo.

- Eckert, P. (1997): «Age as a sociolinguistic variable», in F. Coulmas (arg), *Handbook of Sociolinguistics*, Basil Blackwell, Oxford, 151-67.
- , (2000): *Linguistic variation as social practice*, Blackwell, Oxford.
- , (2003): «The meaning of style», *Texas Linguistic Forum*, **47**, 41-53.
- , (2012): «Three Waves of Variation Study: the emergence of meaning in the study of sociolinguistic variation», *Annual Review of Anthropology*, **41**, 87-100.
- Elordui, A. (2015a): «New media-new challenges for language policy: rethinking the role of public media in language revitalization», in M.J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 163-177.
- , (2015b): «Diseinu linguistikoa eta transmedia-engaiatzea: Gaztea, audientziari begira *prosumitzaileen* aroan», in A. Elordui & E. Arana, *Transmedia Komunikazio Estrategiak: gaurkotasun-edukiak diseinatzeko eta hedatzeko bide berriak*, UEU, Bilbo, 135-154.
- Esnaola, I. (1999): *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*, Ikerkuntza koadernoak 1, UEU, Bilbo.
- Giddens, A. (1991): *Modernity and self-identity. Self and Society in the Later Modern Age*, Polity, Cambridge.
- Giles, H.; Coupland, N. & Coupland, J. (1991): «Accommodation Theory: Communication, Context and Consequence» in H. Giles , N. Coupland, & J. Coupland (arg.), *Context of Accommodation. Developments in Applied Linguistics*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Ibarra, O. (2011): *Nafar euskal gazteen ahozko diskurtsoa*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- Jaffe, A. (2000): «Comic performance and the articulation of hybrid identity», *Pragmatic* **10** (1), 39-59.
- Johnstone, B. (2004): «Place, globalization and linguistic variation», in C. Fought (arg.), *Sociolinguistic Variation: critical reflections*, Oxford University Press, Oxford, 65-83.
- Jones, E.H.G. & Uribe-Jongbloed, E. (arg.) (2013): *Social Media and Minority Languages: Convergence and the Creative Industries*, Multilingual Matters, Bristol.
- Kelly-Holmes, H. & Atkinson, D. (2007) «“When Hector met Tom Cruise”: attitudes to Irish in radio satire», in S. Johnson & A. Ensslin (arg.), *Language in the Media*, Continuum, Londres, 173-187.
- Kerswill, P. (1996): «Children, adolescents and language change», in *Language Variation and change*, **8.2.**, 177-202.
- Kress, G. (2010): *Multimodality. A social semiotic approach to contemporary communication*, Routledge, New York.
- eta Van Leeuwen, T. (2001): *Multimodal Discourse*, Arnold, Londres.
- Kristiansen, T. (2003): «The youth and the gatekeepers. Reproduction and change in language norm and variation», in J. Androutsopoulos & A. Georgakopoulou (arg.), *Discourse constructions of youth identities*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Philadelphia, 279-302.
- , (2009): «The macro-social meaning of later-modern Danish accents», *Acta Lingüística Hafniensia*, **41**, 167-192.
- eta Coupland, N. (arg.) (2011): *Standard languages and language standards in a changing Europe*, Novus Press, Oslo.
- Labov, W. (1972): *Language in the Inner City*, University of Pennsylvania Press, Pennsylvania.

- Lantto, H. (2015): *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*, doktoretza-tesia, Helsinkiko Unibertsitatea, Helsinki.
- Leppänen, S. (2007): «Youth language in media contexts: Insights into the functions of English in Finland», *World Englishes*, **26 (2)**, 149-169.
- ; Pitkänen-Huhta, A.; Piirainen-Marsh, A.; Nikula, T. eta Peuronen, S. (2009): «Young people's translocal new media uses: a multiperspective analysis of language choice and heteroglossia», *Journal of Computer Mediated Communication*, **14**, 1.080-1.107.
- Lippi-Green, R. (1997): *English with an accent*, Routledge, Londres.
- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J.; Urla, J. & Uranga, B. (2013): «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea. Nolako euskalduna naiz?», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **(2-3)**, 151-170.
- Pujolar, J. (2001): *Gender, heteroglossia and power: a sociolinguistic study of youth culture*, Walter de Gruyter, Berlin.
- Romaine, S. (1984): *The language of children and adolescents, Language in Society*, Blackwell Pub, Oxford.
- Soziolinguistika Klusterra (2013): *Bergarako nerabeen ahozko jardunean euskara bultzatzeko egitasmoa. Diagnostiko fasea: Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala*, Soziolinguistika Klusterra elkartea, Andoain.
- Wolfram, W. & Schilling-Estes, N. (1998): *American English*, Blackwell, Londres.
- Woolard, K. (1995): «Changing forms of code-switching in Catalan comedy», *Catalan Review*, **9 (2)**, 223-251.



